**3** Mantenugaietatik energia lortzeko, zenbait erreakzio kimiko gertatzen dira zelulen barnean.

a) Nola deritzo erreakzio kimiko horien multzoari?

- ☐ Metabolismoa.
- ☐ Zelula-arnasketa.
- ☐ Heste meharreko xurgatze-prozesua.
- ☐ Energia-iraizketa.

b) Prozesu hori gertatzeko, aireko oxigenoa behar da ezinbestean.
Zer ibilbide egin behar du oxigenoak zeluletara iritsi bitartean?
Idatzi beheko hitzak ordena zuzenean, aireak zer ibilbide egiten duen adierazteko:

*trakea – bronkioloak – laringea – albeoloak – odola – sudur-hobiak*

*bronkioak – kapilarrak – zelulak – faringea*

____ → ____ → ____ → ____ → ____

____ ← ____ ← ____ ← ____ ← ____

**4** **Fabriketan muntaketa-katea nola, antzera samar gertatzen da digestioa digestio-hodian: hodiaren leku batzuetan prozesu batzuk egiten dira, eta beste leku batzuetan prozesu haiek osatu eta beste batzuk hasten dira.**

Lotu, gezien bidez, digestio-aparatuarekin lotutako hitz hauek:

| | |
|---|---|
| kiloa • | • gibela |
| behazuna • | • urdaila |
| elikadura-boloa • | • heste-biloak |
| kimoa • | • hestea |
| xurgatzea • | • ahoa |

**5** ***Arnasketa-higidurak* deritzegunen bidez, kaxa torazikoa zabaldu edo uzkurtu eta birikak handitu edo txikitu egiten dira, arnasgora edo arnasbehera den. Birikak handitze eta txikitze hori saihetsarteko giharrei eta diafragmari esker gertatzen dira, nagusiki.**

Begiratu arretaz irudiari, eta osatu beheko esaldi honetako hutsuneak:




Arnasketa-higidura ____ denean, saihetsarteko giharrak ____ egiten dira, diafragma ____ egiten da, eta biriketara airea ____ da.

Fotokopiatzeko materiala © 2015 Zubia Editoriala, S.L. / Santillana Educación, S. L.


LIVEWORKSHEETS